



EBELk harremanak hautsi ditu Zizurkilgo Udalarekin

ARRAZOIAK ▶ Udalak Baserriko Argia proiektua bere beharretarako erabiltzea salatuta du, besteak beste

UDALA ▶ «Emakume baserritarrei laguntzeko aukera zabala dago», dio Marian Lazkano alkateak ▶ 4

TOLOSA ▶

2006ko egutegiko argazkiak, erabakita

13 herritarrek jasoko dituzte sariak ▶ 2

ABEL BARRIOLA ▶ PILOTARIA



J. ASTIBIA

«Helbururik ez jartzea da nire lehentasuna»

Gaur jokatu du Peñagarikanoren aurka, 17:00etan ▶ 7

BIDEGOIAN ▶

Sardina dastaketak bildu du jendetza

Kultur Astea bukatuta balantze «ona» egin du alkateak ▶ 5



Artzainen bizimodua, argazkietan bildurik

IBARRA ▶ Iñaki Vergara argazkilariaren *Artzainaren Bizitza* argazki erakusketa dago ikusgai Benito Izagirre kultur etxean, hil honen 16ra arte. «Desagertzeaz dagoen artzaintza erakutsi nahi

izan dut», azaldu dio egileak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI. «Gustura» azaldu da emaitzarekin argazkilaria, mundu hori «ondo isladatu dudalako». MADDI SOROA ▶ 6



abenduaren 31 rarte ezkontza erreportaien kontratazioan eskeintza berezia



gudari kalea 10
tel.: 943652228
626782100
tolosa

ZINEMA ▶

Gaztetxoentzako eta helduentzako proiektioak

Gaur eta bihar bi pelikula izango dira ikusgai Leidor aretoan. Batetik, gaztetxoentzatzat *Garfield 2* filma izango da, gaur, 17:00etatik aurrera. Bestetik, *El viento que agita la cebada* ikusi ahalgo da gaur, 19:30ean, eta bihar 22:30ean.

GIZARTEA ▶

Nafarroa Oinezera joateko autobusak

Galtaundi Euskara taldeak autobusak antolatu ditu igande honetan, Beran ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko. Izen-ematea Galtaundiren egoitzan, Tolosako Nafarroa etorbidean egin behar da. Autobus txartela 9 euro kostatuko da eta autobusak tren geltokitik aterako dira 09:00etan. Bueltatze berriz, 19:30ean aterako da autobusa Beratik.

KULTURA ▶

Samanvaya dantza taldearen emanaldia, etzi

Indiako Samanvaya dantza taldearen emanaldia ikusteko aukera izango da, etzi, 20:15etik aurrera, Leidor aretoan. Indiako dantza klasikoaz gozatzeko ikuskizunera joatera animatzen denak 10 euro ordaindu beharko ditu sarrerak eskuratzeko, Leidorren bertan, edo Servikutxan.


KULTURA ▶

Tolosako 2007ko egutegiak baditu jada hamahiru irabazleak

Xabier Ubedaren muntaiak irudikatuko du azala; irabazleek Tolargik eta Tolosagasak eskainitako sariak jasoko dituzte



Uztaila. DIEGO CONSUEGRA



Iraila. JOSE ANTONIO ABAIGOR



Abendua. IÑAKI ELOLA



Ekaina. JOSE MARIA ARRIGAIN



Urria. ELIXABETE GARMENDIA



Urtarrila. ANGEL ALONSO

IÑIGO TERRADILLOS

Urtero bezala, aurten ere iritsi da Tolosako 2007. urteko egutegi argazkiak aukeratzeko ordua. Apirilean Tolosako biztanle orori egin zitzaizen deialdia parte hartzeko, herriko egutegi ofiziala egiteko helburuarekin. Parte-hartzaileek nahi zituzten argazki guztiak aurkezteko aukera izan dute, baina hori bai, bete beharreko baldintza, egutegia Tolosakoa dela aintzat hartuz, argazkiak Tolosan ateratakoak izatea zen.

Hala, Tolosa 750 Fundazioak, Tolargik eta Tolosagasak antolatutako argazki lehiaketan herritarrek argazki ugari aurkeztu ostean, epaimahaiak egin du jada aukeraketa. Hain zuzen ere, hamahiru dira orotara irabazleak. Argazki bakoitza urteko hilabete batean agertuko da eta, aurtengoan, Xabier Ubedaren muntai batek irudikatuko du azala. Bestalde, irabazleen artean sari handiak banatuko dituzte; sari nagusia azalean joango den argazki edo muntaiaren egileak eman du, baina beste 12 aukeratuak ere jasoko dute saria. Tolargik eta Tolosagasak eskainitako sariak dira, hain zuzen, irabazleek jasoko dituztenak.

Egutegia eskuratu nahi duenak abendura arte itxaron behar du.

DATUAK ▶

Ondorengo hauek dira aurtengo Tolosako egutegirako, bai azalera, bai eta 12 hilabeteetarako aukeraturako argazkiak. Sari ugari jasoko dituzte irabazleak.

IRABAZLEAK

Azala. Xabier Ubeda.
Urtarrila. Angel Alonso.
Otsaila. Jabier Ortiz Moreno.
Martxo. Miguel Uranga Martin.
Apirila. Estibaliz Silloniz-Odiaga.
Maiatza. Jose Ignacio Gabarain.
Ekaina. Jose Maria Arrigain Ijurrá.
Uztaila. Diego Consuegra.
Abuztua. Miren Atxaga.
Iraila. Jose Antonio Abaigor.
Urria. Elixabete Garmendia Lacunza.
Azaroa. Tomas Mendizabal.
Abendua. Iñaki Elola.

SARIAK

Azalaren irabazleak. Urte bateko argia eta gasa doan.
Gainerakoek. Urtebetez argia doan sei laguntzat, eta beste sei zentzat urtebez gasa doan.

IRABARKIA

"EDUARDO MOCOROA" UDALEKO MUSIKA ESKOLARAKO ALDIBATERAKO KONTRABAXU IRAKASLE BAT HAUTATZEKO DEIALDIA

Tolosako Udalak konkurtsu-opsiozio bidez aldirerako kontrabaxu irakasle bat aukeratu behar du, 2006-2007 ikasturterako.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zkan, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaerak aurkezteko epea 2006ko urriaren 18an bukatzen da, eguerdiko 13:00tan.

3. hizkuntza eskakizuna aurkeztu ez dutenentzat, euskarazko frogari 20an, goizeko 9:00tan egingo da udaletxean.

Tolosan, 2006ko urriaren 3an.
ALKATEA
JOKIN BILDARRATZ SORRON

MUSIKA ▶

Sorkunek bihar Bonberenean emango dio amaiera birari

Kashbad-eko abeslari ohiarekin batera, Moksha talde kataluniarra ariko da bihar, 22:30etik aurrera



Moksha, musika talde kataluniarra kontzertu batean. HITZA

SORKUN ▶ ABESLARIA

«Duna, aurreko diskoak baino lasaiagoa eta esperimentalagoa da»

Joan den irailean hasi ziren Sorkun abeslaria eta bere taldekideak biran. *Duna*, bere azken diskoa aurkeztuz ibili dira urtebetez, eskenatokiz eskenatoki. Denera, ehun kontzertu inguru eman dituzte, eta azkenetako bat, biharkoa, Bonbereneakoa izango da.

Zer du berezitat biharko kontzertuak?

Bonbereneakoa berezia da, edo interesgarria iruditzen zaigu, alde batetik, orain arte, urte honetan zehar, Tolosa inguruan ez ginelako izan. Eta bestetik, Moksharekin jotzeko gogo handia nuen.

Behin baino gehiagotan joduzue Moksharekin. Nola definituko zenuke hau?

Oso talde interesgarria da, beste inguru batzuetan mugitzen dena. Askoz giro alternatiboagoetan ibiltzen dira. Eta ho-

rregatik, bi estilo hauek nahastu nahi genituen. Bestalde gaur ere beraiekin joko dugu Iruñan, Totem aretoan.

Bigarren diskoa honetan al daketa nabarmen bat eman duzu.

Ni asko harritu nauen diskoa da. Konposatzerako garaian, diska oso arraroa zela iruditzen zitzaidan. Aurretik egindako lanekin konparatuaz, bai Kashbadekoekin, bai eta bakarkakoekin ere. *Duna* askoz ere diska esperimentalagoa da disko honetan. Horregatik, beldur nintzen, aldaketa honen aurrean, jendeak izango zuten erreakzioak. Edo ez ote zuten zentzurik izango. Baina egiteko gogo nuen, eta egin dut. Eta oso harrera ona izan du.

ESTI EZEIZA

Bihar, 22:30ean, Sorkun eta Moksha taldeen kontzertua izango da Bonberenean.

Sorkun, 90. hamarkadaren erdialdera hasi zen abeslari lanetan, Kashbad taldearekin. Taldeak, bere urtetako ibilbidean, hiru disko argitaratu zituzten: *Kashbad*, *Distantzia* eta *Hesiak*. Sorkunek bestelako talde ugari lanetan ere parte hartu zuen garai horietan: Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Ekon, Flitter...1997an berriz, taldea gelditu, eta bere kideak bide berriak jorratzen hasi ziren.

2002. urtean, Sorkunek bakarkako bere lehenengo lana argitaratu zuen, *Onna* izenpean. 2005. urteko irailak 28an berriz, bere bakarkako bigarren diskoa kaleratu zuen,

Duna izenarekin. aurrekoaren oso ezberdina dela esan daiteke. Distortsioak alde batera utzi eta soinu minimalistagoekin eta melodia landuekin jolasten da. Musika tresna berriek kolore ezberdinak ematen dizkiote *Dunari*. Disko «anitza eta, era berean, erraza entzuteko».

Oraingoan, kolaborazioak hauek izan dira: Tzutzi, Potemkin taldeko abeslaria —bere ahots gordina erabiliz *Non Zaude??* kantuan—, Gorka Sesma, Unai Azkuna eta Gaizka Pereda —*Rescue Me* abestiaren oinarri elektronikoak eta gitarrak landu zituzten—.

Moksha kataluniarrak

Musika talde kataluniar honek hilabete osoa egingo du biran. 2002an kaleratu zuten beraien lehenengo diska, eta ordutik hona, beste bi gehiago ere ateratu dituzte.

Ansiom, berain ibilbideko hirugarren lanean, rock gogorarekin jarraitu arren, doinuetan aldaketa bat eman dute. Hiru urteren buruan hiru disko kaleratu dituzte, eta azken hau, goiz bakar batean, zuzenean grabatu zuten Ultramarinos estudioetan.

Orain, bira honekin amaitu bezain pronto, hurrengo diskoaren grabaketa lanekin hasiko dira.



HITZA

Jendeari gustatu al zaio aldaketa?

Bai asko gustatu da, zeren eta, desorientatzen duzunean, eta ezustekoak ematen dituzunean, hasieran harritu, eta zertxobait kostatzen bada ere, gero gustora hartzen da. Gainera, kalitate handiko diskoa da, talde oso ona izan baitut. Nik uste Euskal Herriko jendea estilo berrietara irekita dago.

Estilo ezberdinak jorratzea gustatzen zaizu.

Estilo bakarrekin geratzea oso eskasa iruditzen zait. Lehenengo diskoa oso rockeroa zen, eta hau berriz, oso ezber-

dina da. Denetik dago. Eta hurrengo bat egiten dudanean, hau ere, unearen arabera izango da. Beraz, musika estilo eta mota asko gogoko ditudanez, datorrena. Auskalo!

Zer moduz daramazu Kashbad bezala ezagutzetik, Sorkunerako aldaketa?

Egia esan, nahiko nekagarria da diskoak azalean eta karteletan ateratzea. Momentu honetan, ziurrenik beste diska bat aterako banu, taldearen izena ipiniko nioke ezkutatzeko. Baina bestetik, denbora honetan Sorkunekin lortutako izena ere hor dago. ◀

JAIK ▶

Egun beteko jaia izango da gaur, Berazubi auzoan

E. EZEIZA

Gaur izango da Berazubiko jaietako egun bakarra. Iturriek emandako informazioaren arabera, antolakuntza arazoak direla eta, aurretik ez da jai ofizialik egingo, baina ohitura ez galtzearen, gaur, zenbait ekitaldi gauzatuko dira.

Hasteko, urtero bezala, 09:00etan, diana izango da, eta Tolosako Udal Txistulari Bandakoak kaleak alaituz ibiliko dira. Jarraian, Mendikute elkarteak antolatuta, Mendi Bizikleta Maratoia burutuko da. Egitarauari amaiera emateko berriz, eguerdia aldean, paella lehiaketa burutuko dute auzokideen artean. Hala, ondoren, herri bazkaria izango da partehartzaileek prestatutakoak jateko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 ▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 ▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 ▶ San Esteban: 006800

▶ Gemikako arbola: 006900
 ▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ lurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

EBELk harremanak hautsi ditu Zizurkilgo Udalarekin

«Baztertuta» sentitzen direla eta Baserriko Argia proiektua eta izena «Udalak bere beharretarako» erabiltzea salatzen dute Emakume Baserriaren Elkartetik

IMANOL GARCIA

Emakume Baserriaren Elkarteak (EBEL) harremanak hautsi ditu Zizurkilgo Udalarekin. EBE-leko koordinatzailea den Maider Aramendik **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI** azaldu dioenez, «Zizurkilgo Udalak elkar-tea eta emakume baserriarrak baztertu egin ditu eta Baserriko Argia proiektua bere beharretarako erabili du».

Baserriko Argia proiektua orain sei urte jarri zuen martxan EBELk. Egitasmo horren helburua «emakume baserriarra aintzat hartzea eta bere egoeraren gizarteratzea da», dio Aramendik. Juan Gorriti eskultoreak egindako obren erakusketa ibiltaria izan zen ekimenetako bat. Berak egindako *Baserriko Argia* izeneko eskulturarentzat leku finko bat bilatzerakoan, Zizurkilgo Udala bere prestutasuna agertu zuen. 2002ko Azoka Berezirako jarri zuten Zizurkil Goian eskultura eta sinbolo hori herriaren egoteak harreman estua sortu zuen. Gainera, Azoka Berezirako EBELk urtemuga ospatzeko eta bere erreindikazioak burutzeko baliatu izan ditu.

«Lehenengo urtean oso ondo joan zen guztia», azaltzen du Aramendik. «Deialdi berezia egin zen eta erantzun ona jaso genuen partaidetzaren aldetik. Hurrengo urteak ere nahiko poliki joan dira, baina harremanak okerrera joan direla ikusi dugu». EBELko koordinatzailearen esanetan Udalak erabakiak hartzen joan da eta «guk kanpotik izan dugu horien berri. Esaterako, iazko Azoka Bereziraren aurkezpena ez gintuzten gonbidatu».



Iazko Azoka Berezirako EBELkoek egindako aldarrikapen saioaren une bat. HITZA

Baserriko Argia beka

Harremanak «lehertarazi» dituen gaia Baserriko Argia beka izan da. «Beka ateratzeko asmoa zutela esan ziguten eta gurekin hitz egin nahi zutela bekaren oinarriak zehazteko», dio Aramendik. Herriko emakume baserriarrekin hitz egin ondoren, hauek «beka bat martxan jartzea baino, diru hori gizarte beharretara bideratzea iritzi zioten». Zizurkilgo baserriarrak «ahaztuta» daudela esaten du Aramendik eta «dituzten beharrei erantzutea da eginbeharrekoa».

Beka martxan zegoela eta baserrien inguruko argazki bilduma osatzea zela helburua «kanpotik» jakin zuen EBELk. «Zertan laguntzen die horrek emakume baserriarrei?», gal-

Juan Gorritiren *Baserriko Argia* eskultura. HITZA

detzen du Aramendik. «Horrelako proiektu bat egin nahi badute, ondo, egin dezatela, baina ez dezatela erabili horretarako Baserriko Argia izena». Beka martxan jartzeko emakume baserriarrentzako diru-laguntza eskatzea eta gero emaitzarik «beraiei ez iristea» salatzen dute EBELtik.

Udalarekin bilera eskatu zuten elkartetik, «baina jarrera harro batekin agertu ziren. Protagonismoa izan nahi du Udalak eta guk garbi daukagu protagonista emakume baserriarrak direla». Guzti honen ondorioz harremanak etetea erabaki zuen EBELk eta Zizurkilgo Udalarik Baserriko Argia proiektuaren eta izenaren erabilpena ukatzea.

Udala, «laguntzeko prest»

Bere aldetik, Marian Lazkanok alkateak **HITZARI** azaldu dioenez, «Udaletik baserriarrei zuzendutako lanak ondo daude. Ez dut esango EBELk bere lana ondo edo gaizki egin duen. Laguntza emateko aukera zabala dago eta ahal dugun neurrian lagunduko dugu».

Emakume baserriarrei laguntzeko EBELrekin ikuspuntu «ezberdinak» dituztela azaldu du Lazkanok. «Errespetatzen dugu beraiena. Eztabaidarekin bai ez diegula ezertan lagunduko emakume baserriarrei». Hauen beharrik «mahai gainean jartzeko» adierazi diete EBELkoei. «Gure asmoak ere jarriko ditugu. Baina gauza ez da guk proposatutakoari ezetz esan eta gero beraiek mahai gainean ezer ez jartzea».

Emakume baserriarrek gizarte beharrik dituztela azaldu du Lazkanok. «Herriaren ongizate zerbizua dago eta argi dago baserrietan ez dituztela behar berdinak eta bezaz, egokitu egin behar direla».

Baserriko Argia bekari buruz, hurrengo urtean ere jarraitzeko asmoa dutela jakinarazi du Zizurkilgo alkateak: «Izena berdina ez bada ere, helburua emakume baserriarrei bideratutako laguntza izatea da».

hilberria ▶



Jose Illarramendi Lizaso

Bihotzean min dugu
min etsia,
zure bihotz samurra
ezustean ebatsia.
Gure oroitzak izan bidelagun
BETIKO BIZIAN.

Mirenen lagunak

ZESTOA, 2006ko urriaren 12a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

BIDEGOIAN ▶ KULTURA

Sardina dastaketan bildu da jende gehien

Adin guztietako herritarrek hartu dute parte iraileko azken astean gauzatutako Bidegoiango XVII. Kultur Astean



Irailaren 26an Nola kontsumitu garapen iraunkorraren ikuspegitik izeneko hitzaldia. N. URBIZU

ESTI EZEIZA

Bidegoiandarrek irailari XVII. Kultur Astearekin eman zioten amaiera. Hala, bost egunetan zehar, hainbat ekitaldi gauzatu zituzten, Bidaniko herrigunean, nahiz Goiatzen. Euskal Herriko kultura eta ohiturak dituzte oinarri egun hauetako saiok, eta hauek zabaltzeko baliagarri dira.

Juan Ugarte Bidegoiango alkatearen esanetan, lehenengo bi egunetan astearte, eta ostegunean, ez zen jende gehiegirik bildu, Lehen saio hauetan, hitzaldiak, erakusketak, eta azoka izan ziren, besteak beste.

«Hitzaldiak-eta ordu txarrean dira, jendea lanean baitago; eta zaila da asmatzea», azaldu zuen Ugartek.

Hirugarrenerako hala ere, herritar gehiago animatu ziren, eta Haimar Zubeldia eta Iñigo Chaurreaux txirindularriek emandako hitzaldiak arrakasta gehiago izan zuten. Bi kirolari hauek, jendeak zituenez zalantza eta galderak argitzen saiatu ziren ordu bete inguruko saioan.

Jende gehien bildu zuen ekitaldia, Goiatzeko plazan, irailaren 24an egin zena izan zen. Produktu ezberdinez osatutako azokarekin batera, sagardo

eta txakolin dastaketa izan zen. Denera, 250 edalontzi saldu ziren. Edariari laguntzeko berriz, sardinak prestatu zituzten, nahi zuen edonork jateko.

Azken egunean berriz, haurrak izan ziren protagonista. Alde batetik, Bidegoiango frontoia jolas parke bilakatu zen, eta herriko nahiz kanpoko haurrek «ederki» gozatu zuten puzgarri eta jokuekin. Bestalde, arratsaldean, marrazki lehiaketa eta txotxongiloak izan ziren. Honela, egunari eta Kultur Asteari amaiera gozoa emateko, txokolatadarekin bukatu zuten.

JUAN UGARTE ▶ BIDEGOIANGO ALKATEA

«Hamarrekoa, Zubeldia eta Chaurreauren hitzaldiarentzat»

Juan Ugartek (Bidegoian, 1965) Bidegoiango Alkate nahi herritar bezala Kultur Asteko ekitaldietan parte hartu du. Hala, egun hauetako jardueren inguruko balorazio bat egin dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI.

Zer da jendeak faltan bota edo eskatu duena?

Aurten ez dute ezer eskatu. Baina datorren urterako, lehenengo egunetan egin diren hitzaldietarako, botikari bat ekartzeko eskatu didate.

Ekitaldiak Bidanien nahiz Goiatzen egin dira?

Bai, Goiatz auzoa da, eta ez du Udalik. Beraz, bietarako da Kultur Astea. Goiatzen, igandeko azoka egin genuen. Eta gero, hitzaldiak-eta balio anitzeko zentruan izan ziren. Haimar Zubeldia eta Iñigo Chaurreauren saioa berriz, Udaletzeko Pleno aretoan egin genuen. Azkenik, larunbateko ekitaldiak frontoian egin genituen.

Ekitaldirik onena zein izan da?

Nire ustez, igandekoa, sagardo eta txakolin dastaketarena oso ongi egon zen. Baina hamarrekoa, Zubeldia eta Chaurreauren hitzaldiari emango nioke. Oso ondo portatu ziren beraiek eta gustura geratu ziren.

Datorren urterako zer asmo duzue?

Nik, esaterako, garrantzi handiena ostiraleko saioei ematen diet. Eta normalean, egun hotzetan, mendizale batzuk etor-



LEIRE MONTES

tzen dira hitz egitera. Aurten berriz, lehenengo aldiz, probatzearen, bi txirindulari ekarri ditugu. Eta datorren urterako, bi pilotari ekartzeko asmoa dut. Oraingoan ere, bi Realeko jokalariek ekartzen saiatu naiz, baina Ligaren hasiera zela-eta ezin izan da.

Beraz, gehien gustatzen den arloetako bat kirola da?

Bai, beti jende gehiago izaten da. Beno, asko. Hor ere ordutegi on bat lortuko bagenu...

Zure ustez, zer behar da jendeak Kultur Asteetan parte hartzeko?

Ez dakit, gu gauza askorekin saiatu gara, eta beraiei galde-tu ere egin diegu. Baina nire ustez, horrelako jendea ez da gauza hauetaz arduratzen, ez die garrantzirik ematen. ◀

hitza **txokoa** *lagunen*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetan
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

IBARRA ▶ KULTURA



Artzainak duenn ardientzako ebolan ardietako bat jezten. IÑAKI VERGARA



Artzaina eta zakurraren arteko harremana oso estua da. MADDI SOROA



Informaziozko testuekin lagundu du Vergarak erakusketa. MADDI SOROA



Iñaki Vergarak proiektua aurrera eramateko lanean argazkiak atera dizkion artaldeetako bat. IÑAKI VERGARA

IÑAKI VERGARA ▶ ARGAZKILARIA

«Desagertzeaz dagoen artzaintza erakutsi nahi izan dut»

‘Artzainaren Bizitza’ argazki erakusketa Kultur Etxean

MADDI SOROA

Gipuzkoan jaio baina txititatik Iruñean bizi den argazkilaria da Iñaki Vergara. Beste ofizio bat badu ere, argazkilaritzan trebea da. Hilaren 16ra arte, artzainaren bizimoduaren inguruko argazki erakusketa jarri du abian Kultur Etxean.

Argazkiek bakarrik hitz egiten omen dute, baina zer adierazi nahi izan duzu?

Egun gaztagintzan diharduten 11 artzain daude soilik Euskal Herrian. Pertsona horien bizitza ezagutarazi nahi izan dut ikuspegi etnologikotik abiatuta. Izan ere, zorritarrez globali-

zazioaren eraginez artzaintza desagertzen ari da. Duela 20 urte gorengo mailako ofizio izatetik desagertzeko zorian dagoen artzainaren bizimodu erakutsi nahi izan dut.

Nondik sortu zitzaizun ideia? Aurrena artzain-txakur txapelketetara joaten hasi nintzen argazkiak ateratzera. Artzainaren bizia ezagutzeko joan nintzen eta apurka-apurka artzaintzarako interesa handituz joan zitzaidan. Mundu erakargarria egin zitzaidan eta artzainak ezagutzen joan nintzen heinean beraien bizitza ezagutzera emateko interesa piztu zitzaidan.

Erakusketa lineala egin duzu.

Argazkietan lan egiteko modu bat garatzen da, gauzak egiteko modu bat. Hasierako ideia artzain bakar batean zentratzea bazen ere, azkenerako argazkiak artzaintzari orokorretara daude zuzenduta. Izan ere, artzaina lotsatu egin zen eta ez zuen nahi bere irudirik agertzetik. Artzain bakar batean proiektatu da lana baina guztien izenean doa, eskuak, funtzioak, hanketako detaileak, zakurrekiko harremana eta gauza orokorrak ageri baitira. Artzainaren inguruko zerbait zehatza izan beharrean, artzai-

naren munduari egiten dio erreferentzia, etxola, artzaina edota lekua aldatzen dira baina azken batean denek egiten dute gauza bera eta guztiak egiten dute lan modu berean.

Esperientzia polita?

Oso esperientzia ona izan da. Hala ere, artzainak pertsona itxiak dira eta zaila da ateak irekita aurkitzea, horregatik, ez daukazu nahiko zenukeen espazio osoa argazkiak egiteko garaian. Horretaz gain, ordea, ongi aurkitu naiz, harreman atsegina izan baitut beraiekin. Oso pertsona jatorrak dira, zintzoak eta egiazkoak, pentsatzen dutena esaten dute arazorik gabe eta horrek lasaiago lan egitea ekartzen du.

Txuri beltzeko argazkiekin artzainaren bizitza, kolorezkoekin artzain-zakur txapelketa.

Nire buruari proiektua proposatu nionean, argi neukan etnologiazko proiektua izango

zela. Horrek oroitzapenak gogorazten zizkidan, horregatik aukeratu nuen txuri beltzeko argazkigintza. Artzain zakurren lehiaketari dagokionez, kolorea aukeratu nuen gaurkotasuna duen gaia delako. Guztiz ezberdinak diren bi gai dira, txuri beltzekoekin artzainaren bizitzako alde intimoa erakusten dute; txapelketak, berriz, artzainaren alde publikoa. Kolore aukeraketak ere bi gaiak ezberdintzen lagutzen du.

Emaitzarekin gustura?

Uste dut ondo helarazten dela mezua, gaztagintzaren prozesua eta artzainaren bizitza nola-koak diren, alegia. Agian argazkietan ez da behar beste estimatzen artzainek sentitzen duten bakardadea, baina gai-nontzean oso gustura nago emaitzarekin. Argazkiak artzain bizitza desagertzen ari denaren dokumentu argia dira eta gustura nago horrekin. Jendea animatu nahiko nuke argazki erakusketa ikustera. ◀

ABEL BARRIOLA ▶ PILOTARIA

«Gaurko partidari helbururik ez jartzea da nire lehentasuna»

Gaur arratsaldeko bostetan jokatuko du atzelariak Lau t´erdiko Txapelketa; Peñagarikanoren aurka ariko da

NAIARA GARZIA

Asteartean pilotak aukeratu ondoren, pozik ageri da Abel Barriola leitzarria gaur Bergaran jokatuko duen partidaren aurrean. Denbora dezente pasatu du txapelketetik kanpo eta gogoz ekinen dio jolasari.

Zein da zure helburua bihar-ko partidaren aurrean?

Nire helburua lehenengo, partida bera da. hau da, lehenengo partida honetan dena ematea. Baina aldi berean, pasatu dudana eta gero ez diot nire buruari helbururik jarri nahi. Lehenengo partida honen ondoren aurrera egiteko zorte hori izango banu, beste gauzetan pentsatzeko denbora izanen nuke.

Hainbeste denbora txapelketatik kanpo eman ondoren, Lau t´erdiko Txapelketan hasteko gogotsu zaude?

Bai, dudarik gabe; txapelketa bat baita pilotari bati maila eman eta kentzen diona.

PEÑAGARIKANO

«bere dohain nagusia sakea da. Pilotari gogorra da, fisikoki beti ongi prestatua dagoen mutila»

GAURKO PARTIDA

«biok jokatze-ko daukagun moduarengatik abiadurak garrantzi handia izanen du»

FRONTOIA

«Bergarakoak lan handia eskatzen du. Eraso-oso atsegina da, baina defentsarako ez horrenbeste»

Entrenamenduarekin pozik zaude?

Ahalik eta hobekien prestatzen saiatu naiz. Prestatzaile fisikoaren laguntzarekin gimnasioa, lasterkako lana eta frontoieko entrenamenduak konbinatzen ditugu. Gainera eskuz banakako txapelketek, 4 t´erdiko bezala, fisikoki lan gehiago egitea eskatzen dute. Gaur ikusiko da prestakuntza horien emaitzak onak diren edo ez.

Psikologikoki nola prestatzen zara txapelketaren presio horri aurre egiteko?

Psikologikoki pertsona bakoitzak mundu bat da, bere dohainekin eta bere alde txarrekin eta norberak bere burua lasaitzeko moduak izaten ditu. Nire kasuan lasaitzeko mendiak ematen didan isiltasuna eta lasaitasuna oso lagungarriak izaten zaizkit.

Eskuan berririo minik sentituko duzun beldur al zara?

10 hilabete inguru geldirik egon ondoren askoz hobekia nago eta eskutako min horri neurria hartu diot. Eskua gehiago babesten saiatzen naiz eta horretarako tako gehiago jartzen ditut. Azkene-ko bizpahiru hilabeteetan ez dut ezer nabaritu eta lesio hori ahaztuta dudala uste dut.

Lau t´erdiko Txapelketan gustura sentitzen zara?

Bai. Gustatu, asko gustatzen zait, oso joku polita eta alai- bai. Gainera asko entrenatu dut distantzia horretan eta beti emaitza onak lortu ditut. Nire dohaintzako nahiko distantzia polita dela uste dut.

Pilota biziagoak aukeratu omen dituzu zuk. Peñagarikanok aukeraturakoak zer irudituko zaizkizu?

Berak frontistik irteera gutxi-segoa daukaten pilotak aukeratu ditut, lurrean gehiago ibiltzen direnak. Nireak, aldiz, frontistik salida gehixeagoa daukate eta lurrean gutxi-ago ibiltzen dira. Biok gelditu gara gustura eta hau albiste



J.SAZAR

ona da. Garrantzitsua da pilotariak materialarekin gustura sentitzea. Horrela, gaur, galdu nahiz irabazi, ez da kezarik izanen material aldetik.

Peñagarikano aurkari bezala nola ikusten duzu?

Bere dohain nagusia sakea da. Honetaz gain, pilotari gogorra da, fisikoki beti ongi prestatua dagoen mutila eta udan lau t´erdian asko entrenatu duela badakit. Gainera, ilusio handiz hartzen ditu beti txapelketak. Horrelako pilotariak oso arrisku-ak izaten dira, pilotari abiadura handia ematen baitiote. Aurkari gogorra izanen da eta biok jokatze-ko daukagun moduarengatik abiadurak garrantzi handia izanen duela uste dut.

Txapelketan faborito bezala zein ikusten duzu?

Azken urteetan ikusi duguna kontutan hartuta, Aimar Olai-zola. Txapel bat baino gehiago irabazi ditu distantzia horretan eta momentu honetan bera da, erderaz esaten den bezala, «el pelotari a batir».

Zure ustez txapelketan zehar ustekaberik izanen al duzu?

Txapelketa guztietan izaten dira errebelazioak eta baita atsekabeak ere.; espero dutena baino gutxiago ematen du-

ten pilotariak eta espero dutena baino gehiago ematen dutenak. Alde horretatik txapelketa guztiak berdina dira.

Oraingo arte jokatutakoa nola ikusten duzu?

Berasaluzek Leitza bezalako pilotari bati irabaztea usteka-bea izan zen eta nik uste horrelako partidak ere emango direla txapelketan zehar.

Bergarako frontoian gustura sentitzen al zara?

Bergarako frontoia lan handia egitea eskatzen du. Eraso-oso frontoi atsegina da, baina defentsarako ez horrenbeste. Pilotak azkartasun han-

dia hartzen du; ahalik eta joku azkarragoa, orduan eta defenditzeko zailagoa izaten da. Horrexegatik Bergarako frontoian jokatzen diren partida askotan iniziatiba eramaten duenak partidaren zati handi bat irabaz- dia dauka.

Jarraitzaileen beroa lagungarri izaten al da kanpoan jokatzen duzunean?

Nire lana kantxan dagoen arren, jarraitzaileen beroa sentitzea oso garrantzitsua dela uste dut. Horrexegatik gaur hauek jaso dezaketen albiste-rik onena partida on bat jokatzea eta irabaztea da.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Bullying-a: zergatik ematen da? Azken urteetan ikaste-keetan eman diren bullying kasu batzuk ezagutzera eman dira. Ikasle batzuk tratatu txarrak eta irainak jasotzen dituzte. Gure gurasoek jasaten zuten bezalako erasoak dira? Irtenbiderik ba al du? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. BMW M3 urdina, 286 zaldirekin. 1995ekoa. 153.000 kilometro, liburuarekin. 18ko gurpiletako llantak eta tetxua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatu-ekin deitu 943654143ra.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635745291era.



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 12a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzera

13

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Euskara Elkarateak eta Gazte Taldeak igande honetan Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatuta dute. Horretarako, lehen bait lehen eman behar da izena ohiko tabernetan edota Zumadi eskolan.

Tolosa. Mendikutek antolatuta, Tolosaldeko inguruetatik mendibizikletako 45 kilometroko iraupen luzeko maratoia ospatuko da. Irteera 09:30etan Berazubi Auzoan eta bertan izen-ematea badago.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Ibarra. Iñaki Vergara argazkilariren *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien erakusketa ikusgai Kultur Etxean, hilaren 16ra arte.

Tolosa. *Espertentziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratzeko proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

ZINEMA

Tolosa. *El viento que agita la cebada* filma ikusgai, Leidor aretoan, 19:30ean, 4,5 euroren truke.

Tolosa. *Garfield 2* filma ikusgai, 17:00etan. Leidor aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
 22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Apar arrakastatsuak

TOLOSA ▶ VIII. Garagardo Festak berrikuntza nagusi bezala, Zerkausi eraberritua izan du; antolatzaileek «asko irabazi duela» azaldu dute

ERREDAKZIOA

Berrikuntza nagusi batekin iritsi zen iragan ostegunean VIII. Garagardo Festa, Zerkausi eraberritua, hain zuzen. Datarena ere aldaketa garrantzitsua izan da, aurrekoetan baino beranduago egin baitute. Badirudi, baina, aldaketa hauek oso ondo etorri zaizkiola Festari, izan ere, antolatzaileek azaldukoaren arabera, «dena oso ondo irten da, eta oso gustura gaude».

Ostegun arratsaldean atzerapenez ekin zion Festak, «arazo txiki batzuk» tarteko. Dena den, bere ateak ireki, eta jendea erruz hasi zen bertaratzen garagardo mota desberdinak dastatzera. Osteguna izan zen antolatzaileen arabera egun lasaia, baina ostiralean, larun-



Zerkausi eraberritua hartu du Garagardo Azoka. NEREA URBIZO

batean eta igandean jende ugari izan zen, bai plaza Zaharreko karpan, bai eta Zerkausiko 3 solairuetan ere. Izan ere, azkenean, goiko pisua ezezik, behokoa ere erabiltzea erabaki zuten, eta emaitza «uste baino hobea izan da; beldur pixka bat genuen Zerkausiarekin, baina ikusi dugu 3 solairuak erabiltzearena oso baliagarria dela, eta etekin handia atera diezaiokegula; asko irabazi du Festak gune berrituarekin».

Azokan egin beharreko «lan handia» azpimarratu ohi dute antolatzaileek, baina, antza, lan horrek eman du bere fruitua, «iganderako ia garagardo guztia bukatua baitzegoen». Horretaz gain, 4 taldeen artean banatu beharreko irabaziak ere espero bezalakoak izango direla esan nahiko du horrek.



Igandean gazteek ederki igaro zuten Triangulo plazan. NEREA LIZARTZA



Plaza Zaharrean ere egin zituzten jokoak. N. LIZARTZA

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Zorionak zuen urrezko ezta egunean. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familioen partez.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...